

## Gaiak



Juanjo Olsagarre, Angel Erro, Rikardo Arregi, Ibon Egaña eta Iban Zaldúa (ezkerretik eskuinera). / L. RICO

## ‘Inoizkari’ kosakoa

J. A. HERNÁNDEZ  
Ni gure Amarekin ari nintzen telefonoz. Uste dut Iban patata tortila jaten ari zela, Rikardo, ez dakit baina etxean egonen zen, arropa zintzilikatzen, seguru aski. Angelek Burlatoko 7. etorbidea eta 37. kale artean zihola esan zidan, eta Ibon, uste dut egunkaria leitzen ari zela”.

Ez da telebistan hain arrakastatsu bilakatu den bakarrizketa saio horietako baten gidoia, literatura aldizkari berri baten sorrera-agiria baizik, Juanjo Olsagarre idazle eta erredakzio batzordeko kidearen esanetan. Berarekin batera, Iban Zaldúa, Ibon Egaña, Rikardo Arregi eta Angel Erro idazleek erditu dute literaturaren ur barea astintzeko asmoa duen “inoizkari kosakoa”. “Kontua da orduan haragitu zela guran euskal literatura moñoñotasunetik salbatzeko deia. Eta horretara jarri ginen bakoitza bere aldetik harik eta patuak elkartu gaituen arte”, erantsi du Olsagarrek.

Aldizkari —barkatu, inoizkari— salbatzaileak pasa den asantean ikusi zuen argia, Gasteizko taberna batean handikiro ospatu zuten bataioan. Paperik ezean,

## ‘Volgako Batelariak’ aldizkari digitalak literaturaren alderik kitschena aldarrikatu nahi du

sarea erabiliko du sortzaileen mezuak hedatzeko, horretarako egokitu baitute [www.eibar.org/blogak/volga](http://www.eibar.org/blogak/volga) helbide elektronikoa.

Proiektuak *Volgako Batelariak* du izena, erredakzio batzordeak tsarren garaiko literaturari eta kitsch irudiari dioten mirespenaren seinale. “Sobietar Batauneko obraren izen ona hedatu zuten misiolariari ematen zitzaizaien izena da, eta baita XXI. mendeko kantu errusiar bat ere”, argitu du Ibon Egañak

Argitalpenak idazleei egindako elkarrizketak plazaratuko ditu —horietako lehena Pello Lizarralderi egin diote eta sarean da jada— baita literatur kritika edo erreseinak ere. Eta hori da, agian, aldizkari klasikoekin duen antzekotasunik handiena. Gainerakoan, adierazpen librearen aldeko aldarria da. Adibidez, inoiz irakurri ez duten liburuen erreseinak argitaratzeko asmoa dute, aldez aurretik aitortuz irakurleari artikulua egileak liburua azala eta prentsan agertutako ai-

pamenen bat edo beste besterik ez dituela irakurri. “Begiratu dugu solapan jartzen duena, prentsan atera dena, Interneteko erreferentziak eta gure aurreiritziekin batera kritika egingo dugu”, aurreratu du Egañak. Hori, Iban Zalduaren hitzetan, “oso praktika normala denez prentsan, guk egingo dugu, baina aitorua”.

Atal horren azpian bada kritikari zeharkako kritika; edo agian literaturari ematen zaio tratamenduaren aurkako deia. “Euskal literaturan maila berean daude *Denboraren izerdia* eta *Zakurra, zure laguna*. Guztiak dira liburu onak, eta kritikarik ezak hori sostengatzen du”, argudiatu du Egañak.

Horrekin batera, inoiz idatziko ez luketena idazteko eskatuko diote aldizkaritik kanpoko hainbat kolaboratzailei. “Kanpoko jendeari dei egingo diegu eta eskubide osoa izango dute esateko testu hori ez dela beraia”, erantsi du Zalduak.

Behin hori guztia argituta, funtsezko galderari erantzun dio Ibon Egañak. Zer da *Volgako Batelariak*? “Koktel baten izena da, vodka, laranja zukua eta gerezi zaporeko *brandy* nahastuta egiten dena”.

jendeiari ere, literaturazaleentzat interesgarri izan daitezkeen pertsonaiei”, azaldu du erredakzio batzordeko kideak.

Elkarrizketen atalerako aukeratu dituzte hurrengo bi pertsonaiak Enrique Vila-Matas (Bartzelona, 1948) eta Dubravka Ugresic (Kroazia, 1949) idazleak dira. Jatorrizko mezua ahal denik gehien errespetatzeko, elkarrizketa egin den hizkuntzan kaleratuko dituzte artikulua —Ugresicen kasuan, ingelesez plazaratuko dute—.

## Munduko literaturaz aritzeko

J. A. H.  
Igeltseroa komun hauetara etorri da lea norbaitek jaten dion buztana / edo gazte itxura oneko baten bati lan berbera egiterik posible den”.

Lerrook Denis Cooper (California, 1953) 1978an idatzi zuen *Bi mutil* izenburuko poemari dagozkio. Rikardo Arregik euskaratu eta aldizkarian eseki ditu. Horrekin batera, idazle horren lanari buruzko kritika argitaratu dute, genero hori

“terminoaren zentzurik zabalenean ulertuta”, aldizkariaren arduradunek nabarmendu dutenez. Horretarako, dagokion testuinguruan kokatu dituzte egilea eta bere obra.

Itxura ironikoaren gaintik, argitalpeneko edukien erakusgarria da artikulua hori, erredakzio batzordea osatzen duten bost idazleek jatorri-deiturarik gabe ulertzen baitute literatura, bere kolorea edo hizkuntza edozein

direla ere. “Gaur egun nekez hitz egin daiteke literatura nazional, munduko literaturaz hitz egin behar baita”, esan du Iban Zaldúa.

Oraingoan, Pello Lizarralderi egindako elkarrizketa argitaratu dute, baina hori “salbuespena izango da”, hizkuntzari dagokionez batik-bat, Zalduak iragarri duenez.

“Elkarrizketak egingo dizkiegu, ez bakarrik idazleei, baita arte munduarekin erlazionatutako

## Zelig

ESTEBAN ANTJUSTEGI

Nik ahizpa jotzen nuen, amak ni eta ahizpa jotzen gintuen, (...) auzokoek nire familia jotzen zuten” (Leonard Zelig)

Bada Woody Allen-en zinematografian film esanguratsu bat, *Zelig*, pertsonaia aldaberaren paradigma adierazten duena. Bertan, Leonard Zeligek inguruko pertsonen ezaugarri fisikoak eta psikikoak bereganatzen ditu, eta, eraldatzeko duen gaitasunaz baliaturik, ezer pentsatu gabe, gaur gauza bat eta bihar beste bat esateko gai izango da, gaur itxura batekin eta bihar beste batekin ager daitezkeen bezala. Intereza da, berea ala induzitua, ezagutuko duen eragile bakarra, kalkulua izanik haren gidari nagusia.

Hauze da gizaki inurriaren esparrua, inurritegiko legea izango da ulertzen duen bakarra: bere burua mantentzea, irudikatu dituen beste partaideetatik bizirik irauten. Aldaketei atxikitako munduan harrapari bilakatzen da, eta, lehenago lortu zituen errekurtsioak xahutu dituenean, erne egongo da elikadura-iturri berriak eskuratzeko prest. Pauso bat aurrera, bestea atzera, bira eman eta segi aurrera.

Kameleoiak bere inguruarekin harreman zinikoak ezartzen dituelako eta haren jokabidea kokapen egokia aurkitzera mugatzen delako, “uzta ereiten denaren araberakoa izango da” itun berriko esaldia gogoratu beharko dugu. Horregatik, belar gaiztoekin batera garia hazten ari den unean, ez arriskatu bata eta bestea separatzen; hobe uzta sasoiari itxoitea (urtero ematen da) eta, garia biltzen den heinean, itxurakeria zokoratzeko garaia iritsiko da.

Zeligek, ziurrenik, maitatua izan nahi zuen, babestua sentitu, beste onarpena jasotzeko besteak bezalakoak izan. Iaz ere, Bushekin hitz egin ondoren, Jose Maria Aznar bezalako ego sendo batek, doinu mexikarrarekin mintzatu zitzaigunean, beste esanguratsuen onarpena jaso nahi zuen. Baina imitazioak arriskuak ditu, eta Bush bezala hitz egin beharrean, interpretearen doinua baino ez zuen bereganatu. Hala ere, handik gutxira beste identitate bat har zezakeen, denbora laburrean beste muturrean jartzeko erraztasuna frogatuz.

Giza bizitza istorioak kontatzea, asmatzea, sinestea, bilatzea besterik ez da: kateaketa hori hitzen bidez eraikitzea. Denboraren hari ikusezin eta hain sentigarri hori zentzuzko bihurtzea. Eta, ondorioz, datorrenaren aurrean segurantza txikiren bat izatea. Horretarako, guk prometatzen duguna betetzen dugula esaten edo ez garela besteak bezalakoak azpimarratzen pasatzen ditugu orduak, finean, gauza bat esan, baina bestea egiteko. Edgar Allan Poeren poemako bele beltzak, esperantzarik ezaren adierazle, “never more, never more” errepikatzen zuen bezala.



Woody Allenen 'Zelig' filmari dagokion fotograma.

Leonard Zeligen autokontzientzia “bestearen begiradak” anulatua uzten zuen, identitatearen pertzepzioa kasik galtzera iritsi arte, berarekin harremanetan jartzen ziren pertsonen zeukaten rola bereganatzera bultzatuz. Halakoetan, haren diskurtsoak itxura lilurtagarria hartzen zuen eta, hitz gozoen eskutik, mundu liluragarria eraikitzen saiatzen zen, baina ezer ordaindu gabe.

Zelig berak kontatzen du egun batean sinagoga batera sartu eta bertako errabinoari bizitzaren zentzuaz galdetu zioila. Hark hebraieraz erantzun zion, eta Zeligek, hizkuntza hori ez zuenez ezagutzen, ezin izan zuen arazo transzendental horren erantzuna ezagutu. Irtenbide gisara, errabinoak eskolak ematea proposatu zion, hilerio 600 dolar ordainduz.

Bizitza da xahutzen duguna hamaika gauzatan okupatzen garen bitartean, eta denbora iheslariak, *tempus fugit*, ez digu inolako unerik emango: egunerokotasunean pausatu eta handik gutxira, ezer esan gabe, gure bizitzako atalak lapurtu eta iheslari emango diolako. Ekintza bakoitzak bere emaitza duen bezala, erabakien ondorioak ez dira doanik. Hortaz, gure patua erantzukizunak gure gain hartzea izango da, begiak zabaldu eta ona eta txarra bereiziz.

Batetik besterako ibilbidea da kameleoiaren bizitza, ezer eraiki gabe, arintasunean eta inbidian, mesfidantzan eta beldurrean. Baina, doaneko ezer ez dagoenez, pagatu beharreko ordainari aurre egin behar eta, osasuna bilakatu da haren txanpon. Horixe da, Veneziako merkatariairen antzera, ordaindu beharreko haragi-libra. Horrez gain, guztia da hutsa eta hutsala.